


2018

XXIX. LITERATURA LEHIAKETA HAURRENTZAT EUSKARAZ

XXIX. CERTAMEN LITERARIO INFANTIL EN EUSKERA





Argitaratzen diren lan hauek Barañaingo Udalak 2018ko udaberrian antolatutako haurrentzako literatura lehiaketan izan dira sarituak. Guztira 74 lan aurkeztu ziren eta epaimahaian pertsona hauek egon ziren:

EPAIMAHAIA • JURADO

LEHENDAKARIA • PRESIDENTA:

Ainhoa Oyaga Azcona

EPAIMAHAIKIDEAK • MIEMBROS DEL JURADO:

Alaitz Institutuko irakasleak • Profesorado Instituto Alaitz

Josu Goienetxe
Edurne Pérez Landa

Alaitz Ikastetxe Publikoko irakasleak • Profesorado C.P. Alaitz

Nahia Urrutia Riezu
Gurutze Hermoso de Mendoza

Sahats-IKA Euskaltegiko irakasleak • Profesorado Euskaltegi Sahats-IKA

Ascen Argandoña
Josu Asurmendi
Aitziber Garralda
Eider Canales González

Estos trabajos que ahora se publican han sido premiados en el certamen literario infantil en euskera, organizado por el Ayuntamiento de Barañaín en la primavera de 2018. En total se presentaron 74 obras, y el jurado estaba formado por las personas citadas arriba.

ARGITALPENA • EDICIÓN


Barañaingo Udala-Euskara Arloa / Ayuntamiento de Barañaín-Área de Euskera

DISEINUA • DISEÑO Ttipi-Ttapa

INPRIMAKETA • IMPRESIÓN Kulturkari

LEGE GORDAILUA • DEPÓSITO LEGAL NA 1015-2016





AURKEZPENA

Ezer baino lehen ZORIONAK eman nahi dizkizuet lehiaketa honetan parte hartu duzuen guztioi eta, nola ez, saridunoi bereziki. Izan ere, argitalpentxo honen bitartez lau haizetara zabaldu baititugu zuek sortutako ipuinak eta bertsoak.

Era berean, parte-hartzailea bai baina saritua ez bazara izan, ez etsi! Badira mila motibo saiakera horretan segitzeko: epaimahaiak ez du jakin zuk azalduarazi nahi duzuna ikusten; ez duzu asmatu barruan daramazuna islatzen... denok baitugu esatekorik!

Gezurra badirudi ere, jada 29 urte daramatzagu jarduera hau lantzen, ipuinez ipuin, bertsoz bertso... gure herriari euskarazko istorioak eskaintzen. Eta, horrela jarraitu nahi dugu aurrerantzean ere. Hartara, datorren urtean 30. edizioa antolatuko dugu, eta uste dut nabarmentzekoa dela hori.

Nire animoak helarazi nahi dizkizuet, literatura lehiaketa hau aberasten eta horretan parte hartzen jarrai dezazuen eta euskara bizitzako arlo guztietara zabaltzea animatzen zaituztegu.

Nire agurrik beroena eta esker anitz.

PRESENTACIÓN

En primer lugar daos la ENHORABUENA a todas y todos los participantes en este certamen literario, y cómo no a las premiadas y premiados. A través de esta publicación hemos lanzado a los cuatro vientos los cuentos y bertsos que habéis creado.

Y, si has participado pero no estás entre las personas premiadas, ¡no tires la toalla! Son muchos los motivos por los que merece la pena seguir intentándolo: tal vez el jurado no ha sabido ver lo que intentabas transmitir; tal vez no has sabido reflejar lo que llevas dentro... ¡todas las personas tenemos algo que decir!

Es increíble que ya llevemos 29 años desarrollando esta actividad, ofreciendo historias en euskera a nuestro pueblo, cuento a cuento, bertso a bertso... Y queremos seguir así; de forma que el año que viene organizaremos la edición 30, y creo que eso es algo reseñable.

Os animo a que sigáis enriqueciendo este certamen literario en euskera, participando en él y usando el euskera en todas las actividades cotidianas.

Mis más cordiales saludos y muchas gracias.

Iz. / Fdo.

AINHOA OYAGA AZCONA

Hezkuntza, Kultura eta Euskara Informazio Batzordeburua.
Presidenta de la Comisión Informativa de Educación, Cultura y Euskera.



ALTXOR MAPA • Oier Mayordomo

1. SARIA: Lehen Hezkuntza 3.E • 1º PREMIO: Educación Primaria 3º E

Baziren behin Ekaitz eta Oihane izeneko neba arrebak. Gurasoekin eta bere katuarekin bizi ziren. Oso abenturazaleak ziren eta animaliak asko gustatzen zitzaizkien. Egunero gurasoei txakur bat erosteko eskatzen zieten.

Udako egun batean Ekaitzek eta Oihanek gurasoei Mezkitzera joateko esan zieten eta baietz esan zieten. Mezkitzera joan ziren eta ailegatu bezain pronto ganbarara igo ziren. Ganbaran altxor mapa aurkitu zuten, mapa hartu eta ohe azpian gorde zuten. Gauean gurasoak lo zeudenean etxetik joan ziren maparekin, baina ez zekiten mapa irakurtzen. Bat-batean agure bat topatu zuten.

- Zuk ba al dakizu mapa irakurtzen? – Galdetu zion Ekaitzek.
- Bai, nik badakit irakurtzen, nik lagunduko dizuet – erantzun zion agureak.

Orduan mapa jarraituz kobazulo batera iritsi ziren. Kobazuloan sartu eta munstro baten atzean altxorra zegoen. Ez zuten armarik baina agurea oso jakintsua zenez ideia bat izan zuten, bere laguna izatea proposatu zion munstroari eta baietz esan zion negarrez, pozaren pozez. Munstroak altxorra eramaten utzi zien. Altxorra ireki, dirua eta txakurkume bat zegoen. Agurea agurtu eta etxera joan ziren.

IZURDE FAMILIA • Duna Villar

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 3.E • 2º PREMIO: Educación Primaria 3º E

Bazen behin Maite izeneko neskatxa polit eta xeblebre bat, bere amarekin bizi zena. Animaliak gustuko zituen, berdin zitzaion basatiak edo etxaldekoak.


Egun batean, hondartzan harearekin jostatzen zebilen Maite eta zulo handi eta sakon bat egin zuen. Gero izurde familia bat ikusi zuen itsaso ondoan, eta beraiengana hurbildu zen.

- Ama!!! – deitu zuen Maitek.
- Zer, zer? – erantzun zuten gurasoek.
- Izurde familia bat dago hemen, lokatzez eta zikinkeriaz beterik! Gaixotu egingo dira! – erantzun zuen Maitek.
- Etxera eraman ahal ditugu, ama? – galdetu zion Maitek amari.
- Ongi da, baina bakarrik egun baterako eta gero itsasora eramango ditugu – erantzun zuen Maiteren amak.
- Bai ama – esan zuen Maitek.

Etxera eraman zituzten eta Maiteren amak izurdeak sendatu zituen.

Azkenean, izurde txikiak Maiteri lepoko bat oparitu zion eta lagunak egin zituen. Maiteren amak izurde familia itsasora eraman zuen.





YUAN ETA BERE LAGUNA • Aimar Aldunate Lasa

1. SARIA: Lehen Hezkuntza 3.F. • 1º PREMIO: Educación Primaria 3ºF

Orain dela mila urte, Yuan izeneko mutil bat Txinan bizi zen bere aitona eta bere gurasoekin. Etxe txiki batean bizi zen mendiz inguratutik. Yuan oso txintxo eta azkarra zen eta bizikletaz joatea gustatzen zitzaion.

Egun batean paseo bat ematera joan zen bere bizikletarekin. Baina arrautza handi bat ikusi zuen. Orduan eraman zuen apurtuta zegoelako, eta toallekin txitatu zuen, baina ez zion ezer esan gurasoei, bakarrik aitonari.

Egun batzuk beranduago, dragoi bat jaio zen. Berdea zen eta hegalak arrosak zituen.

Egun batzuk pasa ondoren, Yuan konturatu zen gizon batzuk dragoien azala bilatzen ari zirela aurrerago saltzeko. Orduan Yuanek esan zion Dinori (dragoia) zarata ez egiteko.

Jarraian Yuan asko ikaratu zen baina aitona esan zion ez ikaratzeko eta eramango zutela dragoien mendira, pribatua zelako.

Egun batean Yuan, bere aitona eta bere gurasoak kalera joan ziren eta esan zioten Dinori armairutik ez ateratzeko.

Baina aspertuta zegoenez, leihotik begiratu zuen; zoritxarrez mutiko horiek ikusi zuten. Orduan Yuan, aitona eta gurasoak bueltatu ziren.

Mutilek txirrina jo zuten eta orduan Yuan eta Dinok salto egin zuten leihotik eta Yuanek bidali zuen Dino dragoien mendira bizikletarekin. Besarkatu egin ziren agurtzeko.

Urte bat beranduago Yuan lo egiten ari zen, baina bat-batean leihoa irekita zegoenez, gauza handi bat sentitu zuen. Dino zen! Besarkatu eman zioten elkarri. Dinok eskerrak eman zizkion Yuani denagatik.

Handik aurrera poz-pozik bizi izan ziren bakoitza bere bizilekuan eta oso zoriontsuak izan ziren.





HITZ POTOLOAK • Markel Jimenez Goikoetxea

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 3.F • 2º PREMIO: Educación Primaria 3ºF

Bazen behin zortzi urteko neska bat. Begi urdinak zituen, ile beltza eta belarri txikiak. Oso alaia zen eta gehien gustatzen zitzaiona bere lagunarekin jolastea zen, Alaitzen ikasten zuen.

Egun batean eskolara zihoan eta klasean inork ezin zuen hitz egin. Orduan patiora joan zen gurasoen bila baina horiek ez zeuden. Han, neskak espazio-ontzi bat aurkitu zuen. Estralurtar bat ikusi zuen eta esan zion:

- Zer egin duzu nire lagunarekin?

- Sorgindu egin ditut.

- Zergatik?

- Alaitzeko ikasleek hitz potolo asko esaten dituztelako, eta gure planetako umeek telebistan ikusten zaituzte, orduan haiek berdina egin dute.

- Zer egin dezaket hau konpontzeko?

- Barañaingo lakuan “U” formako mendi baten erdian edabe magiko bat aurkituko duzu. Hau, zure lagunei eman behar diezu. Orduan dakizkiten hitz potolo guztiak ahaztuko dituzte.

Neskak hori egin zuen eta hortik aurrera ez zen hitz potolorik entzun Alaitzen.


MARIAREN ASMAKUNTZA • Eder Bidegain Martinez

1. SARIA: Lehen Hezkuntza 4.E • 1º PREMIO: Educación Primaria 4ºE

Denek ezagutzen dute Albert Einstein. Albertek iloba bat zuen, Maria izenekoa. Maria zientzialaria zen eta asmakuntza bat sortzen ari zen bere aitonaaren laborategian. Asmakuntza “Gorputzmolekularenfusioa” deitzen zen eta izenak esaten duen bezala, gorputz bat beste gorputz batera transformatu zuen.

Egun batean, Mariak asmakuntza probatu behar zuen harri batekin. Madalena bihurtu nahi zuen eta nahi gabe bera madalena bihurtu zen. Bere aitona bitartean gosaltzen zegoen eta madalenarik gabe geratu zen. Orduan laborategira jaitsi zen madalenaren bila. Maria madalena izaten jarraitzen zuen eta aitona madalena hori lurrean ikustean jatea erabaki zuen. Koska batez jan eta Maria urdailera iritsi zen. Gure Maria oso zorabiatuta zegoen, ia ia erdi hilda.





Berak non zegoen bazekien, oso azkarra zelako. Urdaitetik heste mehera joan zen eta gero heste loditik biriketara iritsi zen. Birikak ohe elastikoak bezalakoak ziren eta hor luze egon zen jolasten. Oso ondo pasa zuen, ondoren garunera joan zen eta han ideia asko zeuden. Begiak erraldoiak ziren eta garunean zulo bat zegoen. Iluna zen eta bi aldiz pentsatu gabe zulotik behera bota zen. Zuloak txirrista baten antza zuen. Mariak bizkarrezurra zela uste zuen eta asmatu zuen. Bizkarrezurretik giltzurrunera jaitsi zen eta giltzurrunetik heste lodira joan zen eta azkenean uzkira iritsi zen. Bere aitona komunera joan zen kaka egitera. Indar handia egin zuen eta bat-batean Maria madalena atera zen. Bere aitona azkar-azkar laborategira joan zen eta Maria gizaki bihurtu zen. Mariak bere abentura kontatu zion eta aho zabalik geratu zen entzuterakoan. Azkenean pozik bizi ziren.

Hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila zientzialarien plazan.

MILIKITULI ETA LURRA • Nora Fernandez Vidart

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 4.E • 2º PREMIO: Educación Primaria 4ºE

Duela urte gutxi, Paule izeneko neska bat eta bere txakurra Talki Bilbon bizi ziren. Pauleri espazioa asko gustatzen zitzaion eta egun batean suziri bat alokatu zuen eta Talkirekin espaziora joan zen.

Espazioan zeudenean Paule Talkirekin zegoen eta nahi gabe argiaren abiadurara joateko botoiari eman zion eta Esne Bidetik atera ziren, Paule hortaz ohartu zen eta Talkiri esan zion:

- Talki, begira! Galaxiatik atera gara eta ez dakit non gauden! Nola bueltatuko gara Lurrera?

Paulek mandoa hartu eta ikusi zuen lehen planetan lurreratu zen.

Planeta horrek bakarrik belarra eta ura zituen eta janariak berdeak eta urdinak ziren. Planeta hori dena urdina eta berdea zen. Paule eta Talki planeta ezagutera joan ziren. Parke bat ikusi eta parkera joan ziren. Parkera joatean konturatu ziren planeta horretan jendeak koloretako ilea zuela. Batzuk arrosa, beste batzuk berdea...

Parkean eserita jendeak gaizki begiratzen zion. Belarrean eserita zegoenean neska bat bere ondoan eseri zen. Neska horrek ilea hiru koloretakoa zeukan: morea, urdina eta beltza, hiruk nahastuak. Paulek galdetu zion:

- Nola deitzen zara? Eta nola deitzen da planeta hau?

- Ni Live eta zu? Planeta hau Milikituli deitzen da – Livek.

- Ni Paule eta planeta oso polita da – esan zuen Paulek.

- Eskerrik asko – Livek.

Egun batean Paule Milikitulira joan zen baina Live ez zegoen. Orduan, oihu bat entzun eta Live hor zegoen. Pertsona batzuek hartu eta bahitu zuten. Orduan Paulek Live askatu eta betiko lagunak egin ziren.





HITZ EGITEN ZUEN TARTA • Ane Arbizu Diosdado

1. SARIA: Lehen Hezkuntza 4.F • 1º PREMIO: Educación Primaria 4ºF

Baziren behin lau neska-mutil iratxe, Naiara, Malen eta Nerea izenekoak elkarrekin ateratzen zirenak.

Egun batean, Iratxeren urtebetetzea zenean, Naiara eta Malen gonbidatu zituen urtebetetze festa batera esanez bere urtebetetzea parkean ospatuko zutela tarta batekin. Nerea ez zuen gonbidatuko bere bihotzeko laguna ez zelako.

Denak parkera joan, mahai batean mantela jarri eta hortxe tarta utzi zuten jolasten zuten bitartean. Nerea enteratu zenez ez zuela gonbidatu urtebetetze festara, ideia bat izan zuen. Tarta zatitzen zutenean bera mahai azpian egongo zela eta “ez hil, ez hil!” esango zuen.

Orduan, jolasten zuten bitartean, mahai azpian ezkutatu zen.

Naiara, Malen eta Iratxe jolastu eta gero, mahaira joan, Iratxeri abestu eta tarta zatitzerakoan hasi zen “ez hil, ez hil!” esaten.


Hiru neskak harritu, beldurtu... Eta gurasoengana joan ziren korrika kontatzera. Gurasoak zer gertatzen zen ikustera joan ziren pentsatu, lekutik begiratu eta bat-batean Nerea “ez hil, ez hil!” esaten aurkitu zuten.

Naiara, Iratxe eta Malen asko haserretu ziren. Galdetu zioten zergatik egin zuen hori eta erantzun zien hori egin zuela Iratxek ez zuelako gonbidatu eta Malen eta Naiara bai.

Iratxek barkamena eskatu zion eta azkenean lauek urtebetetzea ospatu zuten tarta jaten eta jolasten.







PAPEREZKO GAZTELU HANDIA • Mayra Covaciu

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 4.F • 2º PREMIO: Educación Primaria 4ºF

Bazen behin papiroflexia gustuko zuen Maikel izeneko mutil bat. Egun batean, ez zeukan papera, orduan triste ipini zen. Esan zion bere amari papera erosteko eta gaztelu bat egin zuen! Gaztelu barruan sartzen zen eta bikain pasatzen zuen denbora jolasten.

Egun batean, bururatu zitzaion gazteluaren inguruan kanpaldi bat egitea eta horretarako bere lagunak gonbidatu zituen: “etor zaitezte nire gaztelura”.

Oso pozik zegoen Maikel, bere lagunak etorri zirenean. Lagunak harrিতuta gelditu ziren paperezko gaztelua ikusi zutenean. Baina, animatu ziren eta gelditu ziren.

Festa handia egiten ari zirenean bere ama agertu eta harrিতuta eta haserre Maikel zigortu zuen eta txankletazo bat eman zion ipurdian. Lagunak triste-triste eta korrika etxera joan ziren.





NON DAGO NIRE BIKOTEA? • Victoria Jimenez

1. SARIA: Lehen Hezkuntza 5.E • 1º PREMIO: Educación Primaria 5ºE

Denok bezala, Mari Antonia deitutako emakume batek, egunero sukaldean hainbat gauza egiten zituen: sukaldatu, platerak garbitu, arropa garbigailuan sartu... Baina berak ez zekien bere janaria bizirik zegoenik! Denek (janari guztiek) zeukaten beraien bikotea: ozpina olioarekin, gazta azukrearekin, sandia meloiarekin... Baina oilasko Pakok ez zeukan bikoterik, eta triste jartzen zen hau pentsatzerakoan:

- Zergatik nik? Zergatik ezin naiz gazta edo sandia izan?

Bere lagunek, bikoteak izan zituztenetik, ez zuten hainbeste jolasten Pakorekin, eta azkenean, hau egitea erabaki zuen.

Justu egun hartan kalera atera zen. Baina ez denak bezala, baizik eta 5 itsulapiko hartu, beren gainean igo, leihora salto bat eman eta lorategian hozten zegoen tarta goxo-goxo baten gainean erori zen. Oso zorte ona izan zuen, oraintxe bertan hilda egon ahal zelako, baina zoritxarrez, orain koipetsu zegoen. Lorategitik joatea ez zen hain erreza izan, txakur handi eta goseti bat zegoelako eta Pako janari goxo bat zelako. Orduan, txakurra oheratu arte, Pako etxeko lorategian gelditu zen:

- Gaua da eta orain etxetik joateko momentua da – esan zuen Pakok – Baina ez dut ezer ikusten!

Hori egia zen, gaua zenez ez zen ezer ikusten. Baina justu momentu hartan, 12 auto pasa ziren, eta beraien argiarekin, den-dena ikusten zen. Pako bi alditan pentsatu gabe, lorategitik atera zen eta hor lurrean, lo egin zuen. Hurrengo egunean, oso goiz esnatu zen eta, ezagutzen ez zituen lekuetatik sartu nahian Mari Antoniarekin topatu zen:

- Nire oilasko goxoena! Zer egiten ari zara hemen?

- Nire patata bilatzen ari naiz, denek bikote bat daukate eta...

Orduan, Mari Antonia autoan sartu eta Oilasko Pakok joan nahi zuen lakuetara eraman zuen. Bitartean, bere lagunak kezkatu egin ziren eta bere bila atera ziren. Pakok egin zuen berdina egin zuten bera tokiraino ailegatu arte:

- Zergatik joan zara? – galdetu zuen azukreak.

- Bikoterik ez nuelako, eta zuek kasurik egiten ez zenidatelako.

- Ez zitzaigun inporta bikoterik bazenuen ala ez.


- Orduan?

- Lehenengo zuk zure burua maitatu behar duzulako eta gero guk maitatuko zaitugu – adierazi zuen esneak.

Mari Antoniak dena ikusi zuenez, patatak erosi zituen eta, Pakok orain ez zuen bakarrik bikote bat, baizik eta lagun asko ere bai.

DENAK POZIK!





LUCIA ETA XABI • Eider Astiz

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 5.E • 2º PREMIO: Educación Primaria 5ºE

Bazen behin, Uquiah izeneko neska bat, Txinan jaioa. Uquiahek bi hilabete zituenean bere aitak eta amak erabaki zuten haurtzaindegira eramatea. Hilabete batzuk pasata Nerea, Aitor eta Mikel Txinara joan ziren ume bat adoptatzera. Hor aurkitu zuten Uquiah eta erabaki zuten Lucia izena jartzea. Oso pozik bizi zen Lucia. Familiarekin oso ondo konpontzen zen.

Hiru urte zituenean eskolan hasi zen. Lehenengo eguna oso gogorra izan zen berarentzat, ume guztiek galdetzen zioten zergatik zituen horrelako begiak. Haurrak ez ziren berarekin egoten txinatarrak zelako.

Hirugarren mailan bere adiskideek ez zioten kasurik egiten. Laugarren mailako lehenengo egunean, mutil bat etorri zen ikatza bezain beltza zena eta Xabi zuen izena. Berari ere ez zioten kasurik egiten. Luciari pena ematen zion. Hurrengo egunean Lucia berarekin eseri zen bazkaltzera, eta oso lagun onak egin ziren. Gero, klasean, irakasleak elkarrekin jarri zituen Lucia eta Xabi. Irakasleak esan zuen bakoitzak bere bikotearekin lan bat egin beharko zuela. Orduan, Luciak eskaini zion Xabiri bere etxera joatea lan hori egitera eta baietz esan zion. Eskola bukatzean biak Luciaren etxera joan ziren, oso ondo pasatu zuten lana egiten. Lagunei buruz egin zuten lana. Ondorengo egunean klasean aurkeztu zuten, eta adiskide guztiak barrezka hasi ziren. Oso gaiztoak ziren, baina Lucia eta Xabiri ez zitzairen inporta. Beraiek oso ondo egin zuten lana. Irakaslea haserretu zen eta zigortu egin zituen guztiak. Irakasleak barkamena eskatzeko agindu zien Lucia eta Xabiri.

Horrela esan eta horrela egin, azkenean denak lagunak izan ziren. Lagunak oso gaizki sentitzen ziren Lucia eta Xabiri egindakoagatik. Horrexegatik eskola bukatzean festa bat egin nahi zuten parkean: puxikekin, goxokiekin... Oso ondo pasatu zuten eta festa bukaeran opari asko eman zizkieten Lucia eta Xabiri. Baziren bere lagunak egindako marrazkiak: tximeletak, loreak, txakurrak... Xabi eta Lucia egunero gogo pila batekin joaten ziren bere lagunekin egotera. “Haiek ongi bizi baziren, gu hobeto bizi gaitezen”.

NON DAGO PAISAIA? • Aitor Baquedano Solchaga

1. SARIA: Lehen Hezkuntza 5.F • 1º PREMIO: Educación Primaria 5ºF


Duela urte asko nire aitona istorio bat kontatu zidan. Bera gudak zeuden garaietan bizi zen eta guda bat jasan behar izan zuen. Garai hartan, oraindik hogeita lau urte zituen eta pixka bat tematia zen, baina gauzak serio jartzen zirenean berak beti bazekien zer egin.

Kontatu zidanez, bera guda batera joan zen eta bere taldeak lurralde polit bat aurkitu zuen, paisaia horretan zuhaitzak zeuden, animaliak, ur-jauziak... Dena oso polita zen, hobe esanda, miresgarria zen paisaia hura. Paisaia horretan gudak ez ziren existitzen, hain polita zen! Nire aitona esan zidanez, berak gustuko zuen gauza animaliak ziren, bereziki untxiak. Baina egun batean Ingalaterratik pertsona mordo bat etorri zen, euren lurraldea kentzeko. Mota guztietako armak zeramatzen: pistolak, kanoiak, bonbak, eskopetak... Bi aldiz pentsatu gabe, nire aitona bandoa gudan sartu zen. Ez ziren oroitzen zer zen guda bat, baina Ingalaterraoko pistoletazoak eta bonbak botatzen hasi zirenean bere burua defendatzen hasi ziren. Hura egitean zuhaitz guztiak erre zituzten, konturatu gabe, noski. “Masakre” bat izan zen; hilak zeuden, odola



leku guztietatik, bigarren guda mundiala baino askoz handiagoa izan zen, dena erreta, suntsituta, animalia gehienak hilak... Nire aitona leku altu batean ezkatuta zen, hortik den-dena ikusten zen, orduan, guda geldiaraztea pentsatu zuen baina inork ez zion kasurik egin. Ez zekien zer egin, asko pentsatu ondoren ikurrina txuria hartu eta Ingalaterrakoei erakutsi zien.

- Burutik jota zaude ala?- esan zion koronelak.
- Ez! Zergatik ba?- erantzun zuen nire aitonak.
- Orain beraiantzat da paisaia polit hau.
- Ze paisaia?



Orduan guztiek paisai alderantz begiratu eta den-dena suntsitu zutela konturatu ziren.


Beti jakin behar dugu elkarbanatzea hobea dela batentzat geratzea baino. Hau esanda, aditzeko belarririk duenak, aditu eta ikasi dezala.

BELTZ ETA TXURI • Leire Cestau Lerchundi

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 5.F • 2º PREMIO: Educación Primaria 5ºF

Gauza guztiek hizketan zekiten garaian baziren bi pegaso, Txuri eta Beltz izenekoak. Txuri beltz-beltza zen eta Beltz, ordea, elurra bezain txuria. Txurik hiru urte zituen eta Beltzek hamar. Biei gustatzen zitzairen jolastea, hodeietatik hegan egitea eta batez ere aske izatea. Baina beraien munduan ez zen horrela, egun osoa lanean eman behar zuten. Baina lanik egiten ez bazenuen “Gaztelu Ilunera” bidaltzen zintuzten, bi anaia hauen gurasoei gertatu zitzairen bezala. Anaiak pozik bizi nahi zuten “Fantasilandian” baina zoritxarrez, ez.

Baina Txuri kokoteraino zegoen, eta Fantasilandiara joatea proposatu zion Beltzi. Anaiak lehenengo ezetz esan zion, baina hain zegoen nekatuta, beti lanean, deskantsatu gabe, jan gabe... eta hainbeste miresten zuen askatasuna, azkenean baietz esan ziola. Orduantxe hasi ziren plan bat pentsatzen, guardiak despistatzeko. Gero mapa bat hartu zuten norantz hegan egin behar zuten jakiteko. Mapa ongi behatzean “Gaztelu Ilunaren” ondotik pasatu behar zirela konturatu ziren. Beldur apur bat zuten baina, hala ere, bidaia egitea erabaki zuten. Bazekiten zaila izango zela baina saiatu egin behar ziren. Lehenengo, guardiak despistatu zituzten eta orduan hegan hasi ziren. Hainbeste urte zeramatzatzen hegan egin gabe ia ahaztu egin zitzaizela aske hegan egitearen sentsazioa. Bidaian dena ongi zihoan, “Gaztelu Ilunera” iritsi ziren arte. Iritsi bezain laster, eguraldia aldatu zen. Lehen eguzkitsua zen eta orain hodeitsua ekaitz gogorrekin eta tximistekin. Txurik eta Beltzek aurrera jarraitu zuten, baina Beltz soka batekin harrapatu zuten hegan ari zela. Txuri arroka baten atzean ezkatuta zen eta gizon batzuek Beltz “Gaztelu Ilunera” sartu zuten. Baina Txuri ez zegoen lo eta Beltz salbatzera abiatu zen. Gaztelua ilun-iluna zen eta oso-oso beldurgarria. Soinurik egin gabe Txuri



anaiaren bila joan zen. Ez zen ezta hots bat entzuten, baina bat-batean Beltzen ahotsa entzun zuela iruditu zitzaion Txuriri. Bere ahotsa jarraitu zuen eta azkenean ziega batean ikusi zuen Beltz eta haren ondoan bere gurasoak. Txurik ez zuen sinesten, bere gurasoak bizirik zeuden!

- Txuri, zer ari zara hemen? – Galdetu zion amak.
- Eta zuek? – erantzun zion Txurik.
- Gero hitz egingo dugu- esan zuen Beltzek- ez daukagu denbora askorik.
- Bai, Beltzek arrazoia du- esan zuen aitak.

Denbora gehiago galdu gabe, ziegako atea irekitzen saiatu ziren, baina alferrik, ezinezkoa zen. Orduan, amak, ilean jarrita zeukan pintza bat, ateko sarrailan sartu eta atea irekitzea lortu zuen. Une berean, hegan hasi ziren eta irekita zegoen leiho batetik ihes egin zuten.

Handik hogeit hamar minutura zegoen “Fantasialandia”. Ordutik aurrera, lauak mundu zoragarri hartan bizi izan ziren. Eta haiek ondo bizi baziren, gu hobeto bizi gaitezen.

AAMAAL • Garazi Rolán Sancet

1. SARIA: Lehen Hezkuntza 6.E • 1º PREMIO: Educación Primaria 6ºE

Kaixo Aamaal naiz, 10 urte ditut. Nire izenaren esanahia bakearen emakumea, itxaropenaz eta posibilitatez beteriko izena da. Orain Espainian bizi naiz baina nire bizitzako abentura kontatuko dizut.

7 urte nituenean Alepon, Sirian, bizi nintzen. Anaia handia eta nire ama gudan galdu nituen. Egun guztietan otoitz egiten nuen berriro ez gertatzeko: esnatzean, gosaltzean, afaltzean... pena asko eman zidan baina gutxienez nire ahizpa eta nire aita nituen.

Hainbeste gudekin Siriatik joatea erabaki genuen. Bidaia luzea eta gogorra izango zela nekien, baina nire izenak esaten duenez itxaropena nuen. Ondo aterako zen guztia. Lehenengo Siriako kostaldera iristeko asko ibili behar genuen. Orduak, egunak, asteak eta hilabeteak. Azkenean iritsi ginen.

Itsasontzia hartu genuen Italiara iristeko. Lagunak egin eta galdu nituen. Bidaian zehar beldur nintzen. Askok. Nire aitak esaten zidan oso positiboa nintzela, baina hobe ez izatea. Ez nion kasurik egin, ni bakearen emakumea naizelako.

Egunak joan eta egunak etorri, azkenean Italiara iritsi ginen. Errefuxiatuen kanpamendu batera iritsi ginen. Umeak, aitona, gurasoak eta gazteak zeuden, gehienak gaixotuta. Gehien ikusten zena odola, urduritasuna eta tristura zen. Nire ahizpa eta biok pixka bat gaixotu ginen, baina azkenean sendatu ginen. Nire aita berriz gaixotu, gaixotu, gaixotu eta hil zen. Nire ahizpa eta biok bakarrik geratu ginen, bakearen emakumea bat-



batean desagertu zen. Ez nuen ez itxaropenik, ez posibitaterik, ez nuen ia ezer ez. Ez nintzen kanpamentutik aterako, nire norakoa hiltzea zen.

Tristurak jarraitzen zuen. Baina egun batean harrera-familia batean hartu behar nindutela esan zidaten niri bakarrik. Ezetz esan nuen, bakarrik joango nintzela nire ahizpa ere eramaten bazuten.

Biok Espainiara eraman gintuzten harrera-familiara. Nire izena esaten duenez bakearen emakumea, itxaropena eta posibilitatea nire gorputzean berriro piztu da.

PAULAREN MAKULUAK • Eider Huarte Arzelus

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 6.E • 2º PREMIO: Educación Primaria 6ºE

Paula 12 urteko neska bat da. Paula Donostian bizi da, itsasoaren ondoan. Goizero, esnatu bezain pronto itsasoari begira egoten da, ze polita izango litzateke igeri egitea hondartzan! Eta triste jartzen da.

Paulak ezin du igeri egin, ezin du korrika egin, ezin du dantzatu. Paulak hanka bat ezin du mugitu jaiotzetik, txikitatik bere lagun minak bi makuluak dira. Paulak ez du anai-arrebarik, alaba bakarra da. Bere gurasoak beti berarekin daude, laguntzen.

Aurten institutuan hasi da, DBH-1, eta ikaskide berriak ditu. Lehendabiziko egunean, beti bezala, denak Paulari begira geratzen dira, eta hor hasi dira galderak: Zer gertatu zaizu? Zergatik dauzkazu makuluak?... Paula ohituta dago horrelako galderak erantzutera. Baina ez du pena eman nahi. Ez du gustuko. Bera zoriontsu da: Hori bai, noizbait makulurik gabe ibiltzea da bere ametsa.

Institutuan, ongi moldatzen da eta pixkanaka pixkanaka bere ikaskideak lagunak bihurtzen dira. Han ezagutzen du lñigo, soinketako irakaslea. Berarekin hasten da ariketa desberdinak egiten.

lñigok kontatzen dio Paulari errehabilitazio zentroa ezagutzen duela Bilbon, oso ona. Paulak hasieran ez du joan nahi, beldurra ematen diolako. lñigok animatzen du eta ikaskideek ere: joan zaitetz, zure onerako dela! Animo Paula!

Azkenean Paula animatu da eta joango dela esan du. Gogorra izan da, egunero arratsaldean joaten da Bilboraino. Han lan eta lan egoten da bi orduz, ariketak egiten eta gorputzaren muskulua mugitzen, gero bueltatzen da etxera eta ikaslanak egin behar ditu.


Batzuetan, goizean ere joan behar du. Baina ez dago bakarrik. Bere gurasoak bere ondoan daude berarekin joan eta etorri.

Ikaskideek laguntzen diote etxerako lanak egiten, eta irakasleak ere laguntzen dio.

Urte osoan egon da makuluarekin eta azkenean ekainean makulurik gabe hasi da ibiltzen. A ze poza! Ezin du hitzekin esan sentitzen duena. Itsasoan sartzen da eta sentitzen du bere gorputza mugitzen uraren azpian, hori bai, igeri egiten ikasi behar du!!

Baina berarentzat momenturik politena gelara sartzekoa izan da. Denak txalotzen diote!! Berak ere eskertzen die denei hainbeste laguntzeagatik! Bere makuluak orain bere ikaskideak dira.





OTSOAREN AZTARNA • Irati Arostegi

1. SARIA: Lehen Hezkuntza 6.F • 1º PREMIO: Educación Primaria 6ºF

Bazen behin, neska heldu bat Ainhoa izenekoa eta hirian bizi zena. Hirian lan egiten zuen, bulego batean. Bere familia “Goierri” izeneko herrian bizi zen, hiritik urrun. Herria txikia eta altua zen, bailarako herri altuena; neguak oso luzeak eta gogorrak ziren, elur asko egiten zuelako.

Orain dela 30 urte biztanle anitz zituen baina poliki-poliki jendea hirira joan zen lan bila.

Ainhoaren familiak abereak zituen eta bere aitak zaintzen zituen. Ainhoari ez zitzaion gustatzen lan hori eta hiriko bizitza aukeratu zuen, bere aita oso ados ez egon arren.

Goierriko biztanleak arazo bat zuten, otsoak herriaren inguruan bizi ziren eta gauetan herrira jaisten ziren, janari bila. Oiloak jaten zituzten, behiak erasotzen zituzten, baita herriko jendea ere. Goierriko biztanleak, gaua iristean, bere etxeetan gelditu ziren, beldurrez, otsoak bere aztarna gauero uzten zuelako.

Gau batean, Ainhoak dei bat jaso zuen; bere aita gaixorik jarri zen. Gaixotasun larria zeukan, eta Ainhoa oso triste jarri zen konturatu zenean. Berak abereak zaindu behar zituela esan zion amak, eta ez zuen nahi. Beraien abereak borda batean zeuden eta neguan momentu gogorrak pasatzen zituzten hara heltzeko, elur asko zegoelako. Egun batean, bordara joan behar zenean elur zaparrada hasi zen. Elur asko egiten zuen eta Ainhoak hotz handia zeukan; baina ez zuen beste erremediorik. Askok kostatzen zen hara joatea.

Iritsi zenean salbu sentitu zen. Animalia bakoitzaren janaria hartu eta eman zien, belarra eta lastoa. Horrez gain, animalia bakoitzak ematen digutena hartzen zuen: behiak, esnea bildu zuen: ardiak, artilea mozten zien; oiloen arrautzak hartzen zituen eta esnea bidoi txikietan sartzen zuen, artilea zakuetan eta arrautzak arrautzontzietan, gero horrekin etxera joateko.

Egun horretan etxera bueltatu behar zuen, zerua iluntzen hasi zen eta Ainhoak beldurra zeukan otso bat hurbildu ahal zitzaiolako.

- Bide luzea eta zaila dut aurrean – pentsatu zuen.

Bidearen erdia egin zuenean nekatzen hasi zen; pauso bat aurrera ematen zuenean geroz eta nekatuagoa zegoen. Bat-batean lurrera erori zen. Elur gehiegi egiten zuen eta begiak oso gaizki zituen. Ainhoak konortea galdu zuen eta lurrean gelditu zen etzanda. Bat-batean, mingaina bat bere aurpegian sentitu zuen; segidan esnatu eta ezusteko handia hartu zuen. Konturatu zen otso bat bere alboan zegoela eta oihu egin zuen:

- Aaaa! Amatxo maitiaaa! Otso bat, otso bat!

Herriko biztanleentzako otsoa etsai handiena zen. Ainhoa poliki-poliki lurretik altxatu zen otsoari begirada kendu gabe; eta herriranzko bidea jarraitu zuen, otsoa berarekin batera. Baina ez zuen indarririk ibiltzen jarraitzeko, eta berriz lurrera erori zen konorterik gabe.

Orduan gauza sinestezina gertatu zen, otsoak Ainhoa ahotik hartu zuen eta arrastaka herrira eraman zuen.

Ainhoa herriko plazan etzanda agertu zen.



- Aizue! Lagundu! Ainhoa da eta konorterik gabe dago! – oihuka hasi zitzaion alkatea tabernan zegoen jendeari.

Guztien artean lurretik altxatu zuten.

- Zer gertatu zaizu? – galdetu zion herritar batek.

- Ez dakit, bakarrik otso batekin nengoela gogoratzen dut – erantzun Ainhoak.

- Hori ez da posible! Otsoek erasotzen eta zauritzen dute eta zu atzamarkarik gabe zaude.

Ainhoa poliki-poliki etxera joan zen eta ohean sartu zenean pentsatu zuen:

- Otso batek bizitza salbatu dit, nola da posible?


Bere bila joan behar dut, non biziko da? Arriskutsua izango da? – Ainhoaren burua bueltaka ari zen.


Hurrengo goizean esnatu zenean, elurreko arropa eta botak jantzi eta otsoaren bila abiatu zen. Erori zen leku berberean itxaroten ari zenean, otsoa agertu zen.

Bordara berarekin eraman zuen eta janaria eman zion. Gaixoa oso argala zegoen; elurraren ondorioz otsoek ez zuten janaria aurkitzen. Ainhoa konturatu zen otsoek erasotzen zutela janaria ez zutelako eta egunero basora janaria eramatea erabaki zuen. Hortik aurrera otsoen erasoak desagertu ziren.

Herriko biztanleak harrituta zeuden baina Ainhoaren sekretua berak bakarrik zekien, egunero janaria zuten.

Otsoa egunero agertzen zen Ainhoaren bila bordara eta berarekin herrirako bidea egiten zuen. Ainhoak ikasi zuen guztiak “zergati bat” zuela eta otsoak bere aztarna uzten zuen mendian gero eta janari gutxiago zegoelako.





JULEN ETA ESKUTITZA • Alain Cano Itoiz

2. SARIA: Lehen Hezkuntza 6.F • 2º PREMIO: Educación Primaria 6ºF

Bazen behin, Julen izeneko mutil gazte bat. Bere aita eta amarekin bizi zen. Julenek 11 urte zituen, ile luzea eta horixka eta betaurrekoak zituen.

Egun batean, mezu bat ailegatu zitzaion: “adi egon Julen”. Mezuan zer jartzen zuen erakutsi zien gurasoei.

- Zer izango ote da? – esan zuen aitak.
- Nik uste dut espiatu didatela – esan zuen beldurtuta Julenek.

Inoiz ez zitzaion horrelakorik gertatu. Orduan, polizia deitzea erabaki zuten, baina probarik ez zuten, gehiago itxarotea adostu zuten. Egunak eta egunak egon ziren ezer jakin gabe.

Julen ikastolara joaten zen beti bezala, baina bijilatzen zutela nabaritzen zuen. Pentsatzen zuen irakaslea izan zitekeela, azken boladan oso arraroa baitzegoen berarekin. Lagun baten txantxa zela pentsatzera ere iritsi zenean amak honela esan zion:

- Tori, hau zuretzat da.
- Zer ote da hau? – galdetu zuen Julenek.
- Hori zuretzat da – erantzun zion aitak.

Julenek gaua iritsi arte itxaron zuen eskutitza irekitzeko, baina azkenean, ez zuen ireki, ez baitzen ausartu. Horren ondorioz, ezin izan zuen lorik egin, eskutitzean zer demontre jarriko zuen pentsatzen pasa baitzuen gau osoa.

Hurrengo egunean, eskutitza irekitzea erabaki zuen, eta honako hau jartzen zuen:

- Julen, hau guztia txantxa bat izan da!

Orduan, Julenek gertatzen ari zena ulertu zuen eta lasaitu egin zen. Lagunengana joan zenean, bizitako sentimenduak azaldu zizkien, eta nahiz eta guztiz ez haserretu, horrelako txantxak ez direla egiten azaldu zion. Orduetik aurrera, ez zituen horrelako txantxa gehiago egin eta lagunak ongi zaintzen eta errespetatzen ikasi zuen.





XXIX. CERTAMEN LITERARIO INFANTIL EN EUSKERA

MODALIDAD BERTSOS ESCRITOS

XXIX.LITERATURA LEHIAKETA HAURRENTZAT EUSKARAZ

BERTSO PAPERAK MODALITATEA

TRANSILBANIA HOTELA

Ibai Uriz

1. SARIA: Lehen Hezkuntza 3.E

1º PREMIO: Educación Primaria 3ºE

(Doinua: Maritxu nora zoaz?)

Drakula nora zoaz?
odola bilatzera.
gose handia daukat,
zatoz laguntzera.

Etorri nahi baduzu,
gauzez izan behar da
bestela eguzkiak
erreko nau eta.

Oso azkar banao
itxoin momentu bat
odola bildu ondoren
parkera joango gara.

Gizon-otso banao
etorri mesedez
jolasteko gogoak
ez dut batere ez.

UDA

Eneko Arazuri eta Iker Villanueva


2. SARIA: Lehen Hezkuntza 3.F

2º PREMIO: Educación Primaria 3ºF

(Doinua: Maritxu nora zoaz?)

Uda etorri da eta
txoriak hegaka
pizsinara joan gara
ongi pasatzera.

Pizsinan gaude eta
eskolarik gabe
lagunak etorri eta
oso pozik gaude.



IPUINAK | CUENTOS

LEHEN HEZKUNTZA / EDUCACIÓN PRIMARIA

SARIA PREMIO	IZENBURUA TÍTULO	EGILEA AUTOR/A	ORR PÁG.
3. E			
1. saria	ALTXOR MAPA	Oier Mayordomo	4
2. saria	IZURDE FAMILIA	Duna Villar	4
3. F			
1. saria	YUAN ETA BERE LAGUNA	Aimar Aldunate Lasa	5
2. saria	HITZ POTOLOAK	Markel Jimenez Goikoetxea	6
4. E			
1. saria	MARIAREN ASMAKUNTZA	Eder Bidegain Martínez	6
2. saria	MILIKITULI ETA LURRA	Nora Fernández Vidart	7
4. F			
1. saria	HITZ EGITEN ZUEN TARTA	Ane Arbizu Diosdado	8
2. saria	PAPEREZKO GAZTELU HANDIA	Mayra Covaciu	9
5. E			
1. saria	NON DAGO NIRE BIKOTEA?	Victoria Jiménez	9
2. saria	LUCIA ETA XABI	Eider Astiz	10
5. F			
1. saria	NON DAGO PAISAIA?	Aitor Baquedano Solchaga	11
2. saria	BELTZ ETA TXURI	Leire Cestau Lerchundi	12
6. E			
1. saria	AAMAAL	Garazi Rolán Sancet	13
2. saria	PAULAREN MAKULUAK	Eider Huarte Arzelus	14
6. F			
1. saria	OTSOAREN AZTARNA	Irati Arostegi	15
2. saria	JULEN ETA ESKUTITZA	Alain Cano Itoiz	17




BERTSO PAPERAK

BERTSOS ESCRITOS

LEHEN HEZKUNTZA / EDUCACIÓN PRIMARIA

SARIA PREMIO	IZENBURUA TÍTULO	EGILEA AUTOR/A	ORR PÁG.
3. E			
1. saria	TRANSILBANIA HOTELA	Ibai Uriz	18
3. F			
2. saria	UDA	Eneko Arazuri eta Iker Villanueva	18







Ayuntamiento de Barañáin
Barañaingo Udala

Nafarroako
Gobernua



Gobierno
de Navarra

euskara**bidea**



Udalaren euskara
zerbitzua
Servicio municipal
de euskera